

48. zk.
2014ko ekaina

Aurrera!

Berrikuntzaren eta Teknologia Berrien dibulgaziozko buletina

Bulego Teknologikoak argitaratua

Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza

AURKIBIDEA

- EAEn Kontratazio Publiko Elektronikoen 10 urte (ikuspegi orokorra eta erronka legal berriak)
2. or.
- Administrazio Elektronikoen rola Eusko Jaurlaritzan
6. or.
- Alboan: Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoa
10. or.
- Laburrak: Gaitasun digitalen Europako esparrua
Hemen da .eus domeinua
12. or.

Aurten Eusko Jaurlaritzaren lehen **kontratazio elektronikoak** abian jarri zirenetik 10 urte bete dira. Beraz, egindako bidearen azterketa egiteko ordua da eta, aldi berean, etorkizunera begiratu behar da, aurre egin beharreko hurrengo erronkak zein diren ikusteko. Hori guztia lehen gaian aurkituko duzue, «EAEn Kontratazio Publiko Elektronikoen 10 urte (ikuspegi orokorra eta erronka legal berriak)» izenburupean.

Administrazio Elektronikoen esparruan tratatuko den bigarren gaia **Segurtasun rol eta ardurak** erregulatzearena da eta horretarako Segurtasun Korporatiboko Batzorde bat sortu da. Hori guztia «Administrazio Elektronikoen rola Eusko Jaurlaritzan» artikuluan azalduko dugu.

Bestalde, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak, «Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoa» artikularen bidez («Alboan» atalaren barruan), **itzulpen automatikoko plataforman** egindako azken berritasunak ezagutarazten ditu. Plataforma horren helburua normalean gaztelania eta euskara erabiltzen dituzten pertsona guztientzako laguntza-tresna bilakatzea da.

Azkenik «Laburrak» atalean, ohikoa den moduan, bi gai jasotzen dira: batetik, «Gaitasun digitalen Europako esparrua», European Teknologia Berrien arloan egindako azken lanak ezagutarazteko asmoa duena, eta Europa guztirako irizpide homogeenak ezarri nahi dituen, **gaitasun digitaleko osagai gakoak** identifikatzeko eta baliozkotzeko, gaitasun digitala digitalki gai izateko ezagutza, ahalmen eta jarrera gisa ulertuta. Bestetik, «Hemen da .eus domeinua» gaia dago, 2009an lehen aldiz argitaratu zena, jakinarazi genuenean PuntuEus Fundazioa lehen urratsak ematen ari zela **.eus luzapena** Interneten errealitate bilaka zedin.

EAEn Kontratazio Publiko Elektronikoaren 10 urte (ikuspegi orokorra eta erronka legal berriak)



2004an, 18/2004 Zuzentarauaren lege-babesean, Eusko Jaurlaritzak kontratazio publikoaren prozesua osorik modu elektronikoa eta telematikoa izapidetzea ahalbidetzen zuten lehen tresnak ekoitzi zituen. Hori guztia Izenpe Elektronikoa erabiltzeak eskaintzen zuen segurtasunarekin.



HIZTEGIA

¹ **Araudia:** Kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzendaraua.

² **ELZ-CAU:** Erabiltzaileen Laguntza Zentroa. Erakunde baten, adibidez, Eusko Jaurlaritzaren, Sistema Informatikoetako jazoerei arreta ematera orientatutako zerbitzua da. Laguntza Zentroan hautematen diren jazoerak jasotzen, tratatzen eta ebatzen dira.

Europar Batasunerako, 2014/24/EB Zuzendarauan¹ jasotakoarekin bat, «kontratazio publikoak rol gakoa du *Europako 2020 Estrategian, hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailea lortzeko orduan, aldi berean funts publikoak modu eraginkorragoan erabiltzen direla bermatuz*».

Hori dela eta, Europako legegileak kontratazio publikoari buruz indarrean dauden arauak berrikustearen eta modernizatzearen aldekoak dira, gastu publikoaren efizientzia handitze aldera. Hartara, adibidez, **enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikoan parte har dezaten** erraztuko da eta kontratatzaileek kontratazio publikoa hobeto erabil dezaten ahalbidetuko da, helburu sozial komunera mesederako.

Horren harira, espazio hau EAEn Kontratazio Publiko Elektronikoaren 10 urteen azterketa egiteko aprobetxatuko dugu eta kontratazio publikoari buruzko Europako Zuzendarau berriak aurkezten dituen berritasun nagusiak aipatuko ditugu.

JARDUEREN AZTERKETA

EAEko Kontratazio Publikoaren ezarpen-denboran, zerbitzu emateko tresna informatikoak eraiki dira erakunde publikoetako profesionaleri eta botere publikoekin erlazioan tutako eragile publikoeri zuzenduta, baita Administrazio Publikoen arteko komunikazioa errazten duten tresnak ere. Halaber, Sinadura Elektronikoaren erabilera sustatu da, transakzioen segurtasuna bermatzeko; Administrazioen arteko kontratu publikoen inguruko informazioa transferitzea sustatu da; horiei loturiko informazioa gizartearen eskura jarri da, publikitate eta gardentasuna bermatuz; eta, oro har, kontratu publikoen eragile ekonomikoen sarbide eraginkor, simple, bermedun, puntual eta eraginkorra eskaini da.

Proiektu honek EAEn Kontratazio Publikoa

ezartzeaz arduratzen den taldeari aldaketaren kostuei buruzko ezagutza ugari eskaini dizkio, eta aldaketa teknologikoarekiko erresistentziari aurre egiteko mekanismo eraginkorrenak agerian geratu dira. Horri guztiari esker, «tresna berriak» abian jartzean eraginkortasunez jardutea ahalbidetu da.

«Tradizionalki, trantsizio teknologikoa lortzeko zailtasun handienetako bat araudien ezegonkortasuna da.»

Abian jarri diren eta beste eragile publiko batzuegan emulazio-efektua handiena izan duen ekintzetako bat tresna informatikoen **ezarpenaren euskarria** izan da. Bereziki esanguratsua da tresna informatiko eta teknologikoen sarbide librea (sinadura elektronikoa), difusio- eta prestakuntza-jarduerak eta ezarpenaren euskarri tekniko eta funtzionala (ELZ-CAU²). Ildo horretan, nabarmendu behar da proiektu honen barruan kontuan hartu direla erabiltzaileak, bai barrukoak eta bai kanpokoak, Erabiltzaileentzako Laguntza Zentroa diseinatzeko orduan; hain da hala, ezen ELZ hobekien baloratzen den zerbitzuetako bat baita.



Jarraian urte hauen balantzea **zifratu**n ageri da:

Prestakuntza	Enpresak	Botere esleitzzaileak
Ikastaroak	225	181
Pertsonak	1.347	685
Enpresak	849	--

Gainera, aipatzekoa da 254 espediente elektronikoki lizitatu direla, 286.814.297,08 euroko lizitazio-aurrekontuarekin.

ERAKUNDE ANITZEKO ERABILERA

Eusko Jaurlaritzak, hasieratik, botere publikoen eta gizartearen artean **sinergiak** sortzeko beharra planteatu zuen. Horretarako, printzipio gisa «*inbertsioa behin egitea eta hori modu orokorrean eta kostu gehigarririk gabe erabil dadin sustatzea*» hartu zuen. Diseinu mota horri esker, edozein administrazio edo Sektore Publikoko edozein erakundek, garatutako tresna informatikoak **libreki erabiltzea** ahalbidetzen da. Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrak aho batez adostu zuen Kontratatzailearen Profilaria buruzko 82/2010 proposamen ez-legezkoa. Horren arabera, «*Eusko Legebiltzarrak administrazio, organismo, erakunde eta instituzio guztiei deialdia egiten die, egiten eta egikaritzen diren kontratatzaile-profileko lan guztiak euskal kontratazio publikoko profil guztiak kudeatuko dituen **plataforma bakar bat sortzen aurrera egin** dezaten*».

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak eragile publiko guztien esku jar ditzake bere tresnak Kontratazio Publikoaren atariaren bidez; horiek eskuragarri daude JASO³-ren bidez eragile publikoentzat eta Internet bidez, eragile ekonomikoentzat www.contratacion.info eta www.contratacion.euskadi.net webguneetan. Une honetan erkidego, foru, eskualde eta udal mailako **58 botere kontratatzailek** erabiltzen dituzte tresna informatikoak.

Enpresak	Kantitatea
Kontratisten Erregistro Ofizialean (KEO) ⁴ eta Enpresen Sailkapenean inskribatuta	5.195
KEO ziurtagiria indarrean dute	1.803
KEOn berriztatze automatikoa aukeratu dute	887
Zerbitzutan sailkatuta	1.026
Lanetan sailkatuta	599

ELKARRI ERAGITEN DIOTEN

APLIKAZIOAK

10 urte hauetako esperientziatik lortutako beste ondorioetako bat da moduluak edo tresnak garatu behar direla, King Krimson musika-taldeko Robert Fripp-ek deskribatu bezala: «unitate txiki, mugigarri eta adimendunak». Hau da, proiektuaren arduradunek **modu autonomoan jardun** dezaketen funtzioak barne hartzen dituzten tresnak ekoiztea erabaki dute; horiek KONEKTATUTA daude, horien eta administrazio elektronikoen zerbitzu komunaren arteko konexio edo web-zerbitzuen bidez.

Honela, modulu desberdinak ekoiztea errazagoa da Kontratazio Publikoari loturiko prozesu guztiak barne hartzen dituen tresna handi bat eraikitzea



planteatuko balitz baino; hartara, gainera, eraikitzea eta mantentzea arin eta errazagoa izatea lortzen da.

Eboluzio teknologiko bereizi horrek eraikuntza-eta ezarpen-egoera desberdinen aplikazio-*mapa* edo -konstelazio bat eskaintzen du, beharren eta eskuragarri dauden giza energiaren eta diruaren arabera. Orobat, erakunde erabiltzaileen izaera eta behar desberdinetara egoki daiteke (adibidez, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontratazio-jarduera ez da Eusko Jaurlaritzaren Sail batenarena bezalakoa; eta Osakidetzaren antolamendu-egiturak ez dauka zerikusirik Aiarako Koadrilarenarekin).

Dena den, pertsonak erabiliko dituzten interfaze guztietan antzeko irudia mantendu nahi da, bai izapidetzailearentzat (INTRANET, JASO) eta bai kanpo erabiltzailearentzat (INTERNET), saiatuz interfaze hori Eusko Jaurlaritzako gainerako prozesu digitalizatueta daudenen antzekoa izan dadin.

Bestalde, **erabilera komuneko tresnak** jadanik eskuragarri badaude, horiek erabiltzea aukeratzen da, modulu berri bat garatu ordez. Azken batez, proiektuaren arduradunek ekintza guztiak optimizatu nahi dituzte, Eusko Jaurlaritzaren **Administrazio Elektronikoen** arloko gainerako ekintzekin bat eta era harmoniatsuan.



HIZTEGIA

³ **JASO**: Jaurlaritzaren Sare Orokorra. Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboa, Gobernuaren Sektore Sareak (Herrizaingoa, Justizia, Osasuna eta Hezkuntza) Euskalsarea, Espainiako Gobernuaren SARA sarea eta zenbait erakunde publiko (hala nola Euskal Herriko Unibertsitatea) integratzen dituen sarea da.

⁴ **Kontratisten Erregistro Ofiziala (KEO)**: informazio gehiagorako «Kontratisten Erregistro Ofiziala automatikoki berritzea» artikulua kontsulta daiteke, Aurrera aldizkariaren 44. alean (2013ko ekaina) argitaratu zena.



HIZTEGIA

⁵ **Elkarreragingarritasuna:** informazio-sistemek eta euskarri modura informazio-sistemak darabiltzaten prozedurek datuak elkarrekin erabiltzeko gaitasuna eta informazioa eta ezaguerak elkarren artean trukatu ahal izateko gaitasuna.

[Iturria: 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena [2010/1/29ko EAO, 25. zk.]].

Era berean, modu iraunkorrean saiatzen dira orotariko **ELKARRERAGINGARRITASUNEZKO**⁵ mekanismoak ezartzen eta zabaltzen, «edozein Erregistro publikotan eskuragarri dauden dokumentuak ez eskatzeko» lege-helburua lortzeko, hartara, herritarren prozeduren izapidetzea sinplifikatuz.

GAUZATZEKE DAUDEN GARAPENAK

Gaur egun tresna ugari ekoizten aritu arren, azken urteotako aurrekontu-murrizketek ez dute utzi indarrean dauden legeetan jasotzen diren izapidetze elektronikoko tresna guztien eraikuntza burutzen. Hori dela eta, gaur egun, kontratazio-sistema osatzeko ataza ugari bukatzea falta da.

Tresna berriak

Hala, ezin izan dira eraiki, adibidez, honako izapide hauek egin ahal izateko beharrezko tresnak: **Elkarrizketa Lehiakorra**, kontratuaren xedea pixkanaka diseinatzea ahalbidetzen duena, kontratazio-organoaren eta eskaintza-merkatuaren arteko interakzioaren bidez, ondoren eragile desberdinen lizitazio- edo lehia-fasearekin; **Erosketa Sistema Dinamikoak**, merkatuko eragile berriei gai jakin bateko kontratuak eskuragarri jartzea, espedienteak erabat izapidetu behar izan gabe kontratu zehatz bakoitzean, hots, esparru-akordio antzeko bat,

merkatu-eragile berriei irekita gauzatzeko unean; eta, azkenik, ez da posible izan edozein prozedura motatara egokitu daitezkeen tresna elektronikokoak eraikitzea ere, hala nola **Enkante Elektronikoa**.

Konexioak


Aurrekontu-muga horiek berek eta antolamendu-zailtasun berek, orobat, KPEn tresnen arteko konexioak haztea ere mugatu du, adibidez, IKUS



kontabilitaterako kudeaketa-sistemarekin, EHAOrekin, EAOrekin, Merkataritza Erregistroarekin, Notarioen sare korporatiboarekin, abalen kudeaketa-sistemarekin, ordainketa-pasabidearekin eta abarrekin.

ERRONKA BERRIAK

Tradizionalki, trantsizio teknologikoa lortzeko zailtasun handienetako bat **araudiaren ezegonkortasuna** da, bi zentzutan: batetik, araudi erregulatzailea sarritan aldatzen da; eta, bestetik,



Europako araudiak Estatuko eta EAeko antolamendu juridikora transferitzen atzerapenak egoten dira.

Tresna informatikoak garatzeko kostu ekonomikoa eta lana, nahiz historikoki kontratazio publikoa bezain formalista izan den eremu batean aldaketak ezartzeak dakarren antolamendu-ahalegina kontuan hartuta, prozedurak maiz

«Modu autonomoan jarduteko gai diren funtzioak, web zerbitzuen bidez konektatuta daudenak, barne hartzen dituzten tresnak ekoiztea erabaki da.»

aldatzeak ezarpena ezinezko bihurtzen dute. Batzuetan, ezinezkoa da prozedurak aldaketetara egokitzeko beharrezko tresnak eraikitzea. Adibide gisa, aipatzekoa da 2010eko abuztuko Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen unean gertatu zen aldaketa. Horrekin, esleipen-sistema aldatu zen eta esleipen bakarrera itzuli zen, esleipena bi jardueratan zatitzen zuen behin-behineko eta behin betiko esleipen-sistemaren bi urte eta erdiren ondoren.

Hori guztia dela-eta, egokitzapen teknologikoa askotan oso zaila da.

Nolanahi ere, zailtasun horiek guztiek erkidegoko legegileei hausnarketa eragin die eta, kontuan hartuta izapidetze elektronikoa BETEBEHARREZKO lege-agertokietan bakarrik garatu dela behar bezala, kontratu publikoari buruzko Zuzentarau⁶ berrietan derrigorrezko izaera handiagoko planteamenduak egin dira bide elektronikoak ezartzeari dagokionez.

Beraz, behin ezarpen-arazoak hauteman ondoren, eta ikusi ondoren zeinen urrun gauden tokiko ingurune merkatu publikoak teknologiararen bidez eskuragarri dagoen erkidego-ingurune baterantz irekitzetik, Zuzentarau berriak izapidetze elektronikoa arautegien erdigunean jartzea erabaki du:

✓ Prozedura soilik elektroniko berriak sortuz, hala nola katalogo elektronikoak

- ✓ Gardentasun-eskakizun berriak eta politiken eta zuzentarauen helburuen betetze-mailaren ebaluazio berriak inposatuz
- ✓ Informazioa eskuragarri egoteko mekanismo telematikoak sortuz eta eskatuz, eta funtzionario nahiz enpresetako langileentzako laguntza-egitura telematikoak sortuz, dagozkien atazak egiteko
- ✓ Batzordeari boterea esleitzea, lortu ez diren helburuak betetzera zuzendutako arau-egokitzapenak egin ditzaten
- ✓ Kontratazio-organoei, berariaz, kontratazio publikoaren prozesuari loturiko prozedura eta komunikazio guztiak erabat modu elektronikoan izapidetzeko aukera inposatzeko ahalmena esleituz, eskaintzak bidaltzea barne hartuta
- ✓ Soilik elektronikoak diren prozeduren izapidetzea sinplifikatuz, teknologikoki eta prozeduraren aldetik sinpleagoak izan daitezen



Halaber, Estatuan zenbait aldaketa gertatu dira 2013ko azken lau hilabeteetan eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legea aldarazi dute:

- 14/2013 Legea, irailaren 27koa, Ekintzaileak eta haien nazioartekotzea babestekoa
- 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoa.
- 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoa.

Horri guztiari, gainera, Eusko Jaurlaritzaren **gardentasun-politikak** berak eta kontratazioari buruzko arautegiaren egokitzapenak gehitzen badizkiogu, EAEn Kontratazio Publiko Elektronikorako ataza ugari geratzen dira betetzeko. □



HIZTEGIA

⁶ Zuzentarauak:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen sektorean diharduten erakundeen kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.



Administrazio Elektronikoaren rolak Eusko Jaurlaritzan, zergatik existitu behar duten

Eusko Jaurlaritzak herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen segurtasunari buruz duen kezka ez da berria. Hala, gaur egun, eremu horretako rol eta ardurak erregularizatu dira, hemen azaltzen dugun moduan.




HIZTEGIA

⁷ **PLATEA:** Eusko Jaurlaritzaren eAdministrazioarako oinarritzko azpiegitura teknologikoaren proiektuan eraikitako sistema eta modulu komunak dira eta gaztelaniazko «PLAforma Tecnológica de la EAdministración» (EAdministrazioaren Plataforma Teknologikoa) siglekin bat dator.

⁸ **Bermeak:** (dimentsio ere deitzen zaie); babestu eta gorde behar diren segurtasunari loturiko informazio-ezaugarriak dira, hala nola egiazkotasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta informazio nahiz dokumentu elektronikoen kontserbazioa.

www.euskadi.net/informatika

2 007an, abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuak, administrazio-prozeduretan baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzea arautzen zuenak, ezarri zuten beharrezkoa zela informazio eta dokumentu elektronikoen **egiazkotasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta kontserbazioa** bermatzeko neurriak hartzea (berme bat gehiago jasotzen zuen, hots, **trazabilitatea**). Orobat, Segurtasun Gida bat prestatzea zehazten zuen (PLATEA⁷ Segurtasun Gida deritzona) izaera orokorreko, izaera teknikoko eta antolamenduzko segurtasun-neurriak jasotzen dituenak, aipatu **bermeak**⁸ betetzen direla ziurtatzeko.



EAEko Administrazio Orokorrean eta Organismo Autonomoetan izapidetze telematikoko euskarri diren aplikazio informatikoetan informazioaren segurtasuna mantentzeko Segurtasun Gida hori, (MSPlatea) deritzona, Justizia eta Herri Administrazio Sailburuaren 2010eko otsailaren

26ko Agindu baten bidez onartu zen, eta Euskadi.net webgunean eskuragarri dago: **MSPlatea**. Gida hori onartu aurretik, Estatuko Segurtasun Eskema (ESE; erdaraz ENS) argitara zedin itxaron zen, ikusteko ea gure Eskuliburuak zihoena ENSek zihoenarekin bat ote zetorren. ENS urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak arautu zuen eta horren helburua baliabide elektronikoa erabiltzeko segurtasun-politika ezartzea zen, oinarritzko printzipioen eta gutxieneko eskakizunen bidez, informazioa behar bezala babesteko eta, azken batez, herritarrengan beharrezko konfiantza-baldintzak sortzeko, ekainaren 22ko 11/2007 Legean (Herritarrek Zerbitzu Publikoak elektronikoki eskuragarri izateari buruzkoa) aipatzen diren baliabide elektronikoa erabiltzeko orduan. Lege horretan, jasotzen da herritarrek Administrazio Publikoekin baliabide elektronikoen bidez erlazionatzeko eskubidea dutela eta administrazio-jardueran informazioaren teknologia erabiltzeari buruzko oinarritzko alderdiak erregularatzen ditu.

Administrazio-prozeduretan baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzea arautzen duen Dekretua, lehen aipatu duguna, bertan behera geratu zen Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretua argitaratu zenean. Hala ere, PLATEA Segurtasun Gidak indarraldi osoa izaten jarraitzen du.



MSPLATEA

Eskuliburu hau, MSPlatea, administrazio elektronikoa (eAdministrazioa) garatzeko azpiegitura tekniko komunaren funtsean dagoen Izapidetze Telematikoko Zerbitzu Komunean oinarrituta dago eta nahitaez erabiltzekoa da izapidetze telematikoen oinarrian dauden aplikazio informatiko guztietan. Eskuliburu honi esker, azpiegiturak behar bezalako

homogeneotasuna du izaera orokorreko segurtasun-neurriak ezartzeko orduan, orobat beharrezko izaera tekniko eta antolamendua, artikuluaeren hasieran aipatu ditugun bermeak betetzen direla ziurtatzeko. MSPlatea bi ataletan banatzen da:

- **Segurtasun-politika**⁹
- **Segurtasun-arautegia**¹⁰

Segurtasun Gida hau orokorrean aritzen da segurtasunari buruz, informazioaz gain beste alderdi batzuk ere kontuan hartzen baitira, hala nola, hardwarea, softwarea, sareak, datuak eta Izapidetze Telematikoaren Azpiegitura erabiltzen duten langileak.

ENSera EGOKITZEKO PROIEKTUA

ENS eta MSPlateara egokitzeko proiektua bi fasetan banatu zen:

- ✓ **I. fasea:** Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen zerbitzu elektronikoen analisi xehaketa eta segurtasunari dagokionez dauden behar espezifikoaren azterketa, Eusko Jaurlaritzak eAdministrazioa zerbitzuak emateko

erabiltzen duen plataforma teknologikoari dagokionez.

- ✓ **II. fasea:** aurreko fasean egindako aurretiazko azterketa aplikatzea, hau da, I. fasean azalduko dugun Egokitzapen Plan xehaketa egikaritzea.



HIZTEGIA

⁹ **Segurtasun-politika:**

Zerbitzu publikoak ematean erabiltzeko baliabide elektronikoen, informatiko eta telematikoaren segurtasunaren kudeaketari ekiteko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen aldetik, helburu, ildo eta hartutako konpromisoari buruzko maila altuko adierazpena da.

¹⁰ **Segurtasun-arautegia:**

Betebeharreko segurtasun-neurriak. Lehen atalean, informazioaren segurtasun-politikan, jasotako helburuen oinarri diren arauak jasotzen ditu. Maila horretan segurtasun-helburuak azaltzen dira eta hartu beharreko arau orokorrak aurreratzen dira.

Informazio-bermeak, zer dira eta zer esan nahi dute

Konfidentzialtasuna: ezaugarri horren bidez galarazten da informazioa baimenik gabeko norbanakoen, erakundearen edo prozesuaren esku jartzea, edo haiei komunikatzea edo haien artean zabaltzea.

Osotasuna: ezaugarri horren bitartez bermatzen da informazioa prozesatu, garraiatu edo biltegitatu den bitartean, ez dela baimenik gabe aldatu edo eraldatu, eta aldaketarik egon bada, oso erraza da antzematea.

Erabilgarritasuna: ezaugarri horren bitartez baimena duten erabiltzaileek sarbidea dute informaziora eta harekin lotutako aktiboetara behar denean, eta erabilera baimendua ukatzeko saiakuntzak galarazten ditu.

Benetakotasuna: ezaugarri horren bidez informazio bat sortzen duen erabiltzailearen nortasuna bermatzen da, hau da, ziurtasun

osoz ezagutzen da nork bidaltzen edo sortzen duen informazio jakin bat.

Informazioa kontserbatzea: zentzu zabalean, dokumentuak hondatu ez daitezen, haiek egonkortzeko eta babesteko erabiltzen diren prozesu eta eragiketen multzoa da. Baliabide digitalen kudeaketaz ari garenean, edozein dela ere baliabideen forma edo funtzioa, aintzat hartu behar dira dokumentuen bizitzazikloa osatzen duten fase guztiak, dokumentuak zaintzeko neurriak ahalik eta agudoen ezartzeko. Beraz, informazioaren beraren ezaugarri bati buruz baino, informazioaren bizitza-zikloaren kudeaketaz ari gara hemen.

Trazabilitatea: informazioa sortzeko, aldatzeko eta kontsultatzeko eragiketetan gertatzen diren alderdi garrantzitsuak jakitea ahalbidetzen duen ezaugarria, hala nola: Nork egin zuen eragiketa? Noiz egin zen eragiketa? Zeintzuk izan ziren eragiketaren emaitzak?

A




HIZTEGIA

¹¹ **Arriskuen analisia:** aktiboak, horien ahultasunak eta mehatxuak identifikatzea, sistemak dituen ahuleziak agerian utz ditzaketanak. ESE/ENS eta MSPlateara Egokitzeko Plana garatzean egin zen analisia Eusko Jaurlaritzaren Saitetan, Organismo Autonomoetan eta EJIEn egindako elkarriketatetik lortutako emaitzetan oinarritu zen. Arrisku-analisia PILAR (4.42. bertsioa) tresna erabiliz egin zen.

I. FASEA: ANALISIA ETA AZTERKETA

Lehen fase honen helburua Egokitzapen Plan zehakaturako prestatzea izan zen (analisia eta plangintza), Estatuko Segurtasun Eskemaren betekizunak betetzeko beharrezko sistemen katalogazioa barne. Proiektuaren erdigunean dagoen plataforma teknologikoak zeharkako zerbitzuak eskaintzen dizkie Eusko Jaurlaritzaren Sail eta Organismo Autonomo guztiei, eta horren gainean orotariko zerbitzuak garatzen dira zuzendaritza bakoitzaren behar zehatzen arabera. Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzaren izapidetze telematikoko azpiegituraren segurtasunari loturiko **arriskuen analisi**¹¹ bat egin zen, aipatu plataforma teknologikoaren segurtasun-egoeraren ikuspegi oso bat izateko, PLATEAren Segurtasun Eskuliburuako jarraibideekin bat. PLATEA lan-tresnari esker, posible da arriskuak identifikatzea, kuantifikatzea eta lehenestea



Eusko Jaurlaritzaren beharrekin bat, erabiltzea beharrezkoa den segurtasun-arlo guztietan. **Aplikagarritasuna deklaratzeko dokumentu** batean ere deskribatu zen, Estatuko Segurtasun Eskemari lotuta eta PLATEA Segurtasun Eskuliburuari lotuta. Dokumentu horretan segurtasun-neurri aplikagarri guztiak jasotzen ziren eta horien ezarpen-maila zehazten zen analisia gauzatzeko unean, segurtasun-arloko erregulazio aplikagarri guztien betetze-mailak identifikatuz eta,aldi berean, kasu bakoitzean identifikatutako alderdi esanguratsuenak

zehaztuz. Era berean, egindako analisiaren arabera ateratako ondorio nagusiak aurkezten ziren eta prestatutako betetze-txosten zehatzak, analisia egiteko erabili zen PLATEA balio-eredua eta ESE/

«eAdministrazioko zerbitzu publikoak eskaintzea: PLATEAk Eusko Jaurlaritzako eta horren organismo autonomoetako langileak, nahiz EJIEn sozietate publikoko langileak, esku hartzera behartzen ditu.»

ENSek nahiz MSPlateak definitutako segurtasun-neurrien (lehenean ezartzen ziren oinarritzko printzipioekin eta segurtasun-eskakizun minimoekin) gurutzatzeak ere eransten ziren.

Aplikagarritasun-dokumentu horrek sistemen kategorizazioa ere adierazi zigun: PLATEA azpiegituraren eta azpiegitura horri buruz eAdministrazioan eskaintzen diren zerbitzuen (eta horiek PLATEA osatzen duten elementuekiko duten mendetasunaren) inguruan egindako azterketaren arabera. Azterketa hori Arriskuen Analisisiko Txosten batean jasota dago, aktibo-eredu batetik, goi-geruzako aktiboei (zerbitzuak) buruz sailek emandako baloraziotik eta aktiboen arteko mendetasunetatik abiatuta, eta PLATEA sistema kategorizatu zen, kontuan hartuta sistemako edozein osagaitara oinarrian dauden geruzetara goi-geruzetako osagaiak iristen direla, eta modu independentean baloratuz segurtasun-dimentsio (edo berme) guztiak. Hartara, kontuan hartuta PLATEAk segurtasun-dimentsioaren balorazio ALTUA zuen zerbitzu bat behintzat jasotzen zuela, PLATEA sistema eta bere osagaiak **maila ALTUKOTZAT** sailkatu ziren segurtasun-dimentsio guztietarako, eta hori da ESE/ENSerako eta MSPlatearako segurtasun-neurriak aztertzeo abiapuntua.

II. FASEA: PLANAREN APLIKAZIO ERAGINKORRA

Garatu zen Egokitzapen Plana aplikatuko bada,

horretan zehazten diren segurtasun-neurri guztiak ezarri eta doitu behar dira. Planaren aplikazioan barne hartzen dira zerbitzu horiek (aplikazio, sare, sistema, ekipo eta egoitzak) barne hartzen dituzten azpiegitura fisiko eta teknologikoen segurtasuna kudeatzea, eta zerbitzu horiek eskaintzen diren baldintzak, PLATEAren Segurtasun Eskuliburuan definitutako aplikazio-eremuko baldintzekin bat datozenak. Fase honetan Estatuko Segurtasun Eskemak eta PLATEA Segurtasun Eskuliburuak segurtasunari dagokionez (antolamenduzkoa, operatiboa eta kontraktuala, nahiz maila teknikoa) eskatzen dituzten segurtasun-neurriak garatzen dira. Besteak beste, hemen **antolamenduzko segurtasun-egitura (rolak eta profilak) definitzen da, gure kasuan Gobernu Kontseiluaren Akordio batean oinarritzen dena. Akordio horrek Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Elektronikorako segurtasun-rolen antolamendu-egitura eta rol-esleipena onartu zuen.**

SEGURTASUN-ROLAK ESLEITZEA

Garatu zen Egokitzapen Plana (planaren egikaritzea) aplikatzea dakar, **antolamendu-egituraren definizio** osoa ezarri eta doitzuz:

- ESE/ENS: Segurtasun Neurria (Segurtasun Politika) eta Segurtasun Neurria (Segurtasun Arautegia).
- MSPlatea: M-1-1 Segurtasun Neurria (Segurtasun Politika) eta M-2-2 Segurtasun Neurria (Segurtasun Prozedurak).

Segurtasun-rol eta -ardurak erregulatzen eta *Segurtasun Korporatiboko Batzordea* eta *Segurtasun Batzorde Teknikoa* ezartzen dira. Segurtasun Politika ere osatzen da (lege- eta erregulazio-esparruaren deskribapen formala eta Eusko Jaurlaritzak, PLATEAren oinarrituta eta Segurtasun Politika honen barruan, eAdministrazio-zerbitzuen inguruan garatutako Datuak Babesteko Lege Organikoa behar bezala integratzea), halaber, segurtasun-arautegia osatzen da eta elkarreragin-eremuak erregulatzen dira. Gainera, ESE/ENSEk «**funtzio bereizia**» ezartzen du oinarritzko printzipio gisa, hau da, Informazioaren, Zerbitzuen eta Segurtasunaren arduradun desberdinak daude.

Rol funtzionalak esleitzeari dagokionez, funtzio

bereziaren oinarritzko printzipio horri jarraituz, honela geratzen dira:

- ✓ Sail bakoitzeko **informazio-arduraduna:** Zerbitzu Zuzendaritzaren titularra
- ✓ **Zerbitzu Komunen arduradunak**
 - Administrazio elektronikoa eta Interneten presentzia duten zerbitzuak: Administrazio Elektronikoko Zuzendaritza eskudunaren titularra
 - Langileen kudeaketa: Funtzio Publikoko Zuzendaritza eskudunaren titularra
 - Kudeaketa ekonomikoa: Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Finantzetan eskuduna den Zuzendaritzaren titularrak
 - Informazio geografikoaren kudeaketa: Lurralde Antolamenduko eta Hirigintzako Zuzendaritza eskudunaren titularra



- ✓ **Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Sare Korporatiboko Sistemaren arduraduna eta Segurtasun arduraduna:** Informatika eta Telekomunikazioetan eskuduna den Zuzendaritzaren titularra
- ✓ **Sistemen ustiaketaren arduraduna:** Eusko Jaurlaritza Informatika Elkarte (EJIE)¹² □



HIZTEGIA

¹² **EJIE:** Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Informatikoa; Sozietate Publiko gisa eratuta dago eta Administrazio honi eta bere Organismo Autonomoei zerbitzu ematen die, otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuan (informazio- eta telekomunikazio-sistemak kudeatzeko funtzioak eta modalitateak antolatzea, planifikatzea eta banatzea arautzen duenean) jasotakoarekin bat.

www.ejie.es



ALBOAN:



Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoa



«Aplikazioa eskuragarri dago Google Play-n eta Apple Store-n»

Hekuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) bidez, itzultzaile automatikoko plataformaren fase berriko lanen emaitza jarri du guztion eskura:

- batetik, www.itzultzailea.euskadi.net helbidean, 2012ko otsailetik operatibo dagoen gaztelania>euskara itzultzailearen **bertsio berria**, eta,
- bestetik, itzulpen automatikoko plataforma horretan gehitu berri diren beste bi itzulpen-norabide edo hizkuntza-bikote berriak: euskara>gaztelania eta ingelesa>euskara.

Eta gainera, aipatutako hizkuntza-pare horien arteko itzulpenak, aurrerantzean, **gailu mugikorretan** ere egin ahal dira, *Android* nahiz *iOS* sistema eragileak dutenetan.

Itzultzaileak testu laburrak (1.500 karaktere, gehienez ere) eta webguneak itzultzen ditu. Beraz, orain arte, gaztelaniaz idatzitako egunkari bat euskaraz ikusteko aukera izan badugu, hemendik aurrera, euskaraz idatzitako bat gaztelaniaz ikusiko dugu edo ingelesez idatzitako bat euskaraz. Jakina, itzulpena ez da perfektua izango baina lagunduko digu egunkari horretan argitaratu den informazioaren inguruko ideia bat egiten. Hemen dugu, adibidez, euskaraz argitaratzen den BERRIA egunkaria gaztelaniaz:

HISTORIA ETA EZAUGARRIAK

HPSk, 2007-2008an, gaztelaniatik euskarara testu orokorrak itzuliko zituen tresna bat garatzeko prozesua aztertzeko lehen urratsak eman zituenean, zientzia-fikzioa ematen zuen esaldi bat gaztelaniaz idatzi eta makina batek euskarara itzultzeak, edo alderantziz. BAINA... ITZULI... KALITATEZKO EMAITZA ONARGARRIA EMANEZ, JAKINA! Orain, hori hor dago, euskarak sekulako aurrerapena izan du teknologia horretan eta, egunero-egunero, herritar askok, normaltasunez, erabiltzen dute Euskara webgunean eskaintzen den zerbitzu hori. Datuek erakusten dute jende askorentzat ezinbesteko tresna bihurtu dela itzultzaile automatikoa, eta horren adierazgarri dira Eusko Jaurlaritzaren zerbitzarietara iristen diren mezuak esanez oso gustura erabiltzen dutela zerbitzu hori. Are gehiago, mezu horien bidez, itzulpen-norabide gehiago ere eskatzen zuten.


Datuei begiratzen badiegu, aurtengo lehen hiru hilabeteetan datu estatistiko hauek ditugu:

2014ko urtea	Dokumentuak (eskatutako itzulpenak)
Urtarrila	308.288
Otsaila	341.722
Martxoa	382.158

2011n, euskara>gaztelania eta ingelesa>euskara itzulpen-norabideen garapena martxan jarri zen. Orditik ere, gaztelania>euskara itzultzailea etengabe hobetzen jarraitu izan da eta, momentu honetan, bertsio berria dago plataforman.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) arlo estrategikoa dira euskara bezalako hizkuntza batentzat. Eta IKTen barruan, gaur

egun, arloren bat ezinbestekoa bada, hori itzulpen automatikoa da. Gure gaurko gizartearen ezaugarrietako bat hizkuntza-eleaniztasuna da; gehienok, lanbide-kontuak direla edo bizitza pribatuko kontuak direla (esaterako bidaiak, harremanak, Interneteko erosketak eta abar), gureaz gain, hizkuntza gehiago erabili behar izaten dugu. Itzultzaile automatikoa bada gero eta jende gehiagok, ordenagailuan, *tabletean* edo telefono mugikorrean eskura duen tresna. Horri esker, komunikazioa izugarri errazten da, hizkuntza ez baita oztopo izan behar gure mundu globalizatuan.



Gure testuinguru elebidunean, euskara eta gaztelania erabiltzen ditugu egunero eta, hain zuzen, bi hizkuntzak modu batean zein bestean erabili behar dituztenentzat itzultzaile automatikoa, esan bezala, ezinbesteko **laguntza-tresna** da. Ez du inoiz gisa itzultzailea ordezkatu, ezinezkoa litzatekeelako, baina, eguneroko lanean, euskara ikasteko eta irakasteko eta, oro har, pertsonen arteko komunikazioan, oso gailu garrantzitsua izango da etorkizunari begira.

Momentu honetan, hiru itzultzaile automatiko daude euskararekin lan egiten dutenak. Eusko Jaurlaritzak Bartzelonan egoitza duen Lucy Software Ibérica enpresaren teknologiaren alde egin zuen euskara bezalako hizkuntza batentzat egokiena zelako. Hizkuntza-arauetan (*Ruled-Based Machine Translation*, RBMT) oinarritzen den sistema da, transferentzia enfokearekin eta analisi sakonaren (*deep parsing*) estrategiarekin, azaleko analisisia (*shallow parsing*) erabiltzen duten estrategiei kontrajarriz. Gainera, **itzulpen-memoriak** erabiltzeko motorra ere badu sistemak. Lucy enpresak Euskadiko hiru enpresa (UZEI, Emergiatex eta Gizerbitek) izan zituen lankide gaztelania-euskara garatzeko eta horietako

batekin (UZEIekin) jarraitu izan zuen lanean garapen berrietan ere. Orain, esan dezakegu, gaur-gaurkoz, sistema hori dela hiruren artean emaitzarik onenak ematen dituen. Izan ere, Jaurlaritzaren konpromisoa eta apustua beti izan da produktu erabilgarria eta lagungarria eskaintzea gizarteari. Hala ere, jakin, badakigu, itzultzaile automatiko guztien kasuan bezala, etengabe hobetzen jarraitu behar dela.

Euskara, zenbat eta garapen teknologiko handiagoa izan, orduan eta indartsuagoa izango da; eta bizi-indar handiagoa izango du. Badakigu gazteek teknologiak erabiltzen dituztela, beraz, hobe euskaraz erabiltzen badituzte. Horregatik, inportantea da itzultzaile automatikoa gailu mugikorretatik ere erabiltzeko aukera eskaintzea. Hemendik aurrera, Android eta iOS sistema eragilea dutenek aplikazioa deskargatu eta erabili ahal izango dute. Android *Google Play*-n eskuragarri dago, eta iOS aplikazioa *Apple Store*-n.

Telefonoetan idatzi beharrean ahotsa erabil daiteke Androiden kasuan, betiere itzulpen-norabidea aukeratu eta gero, eta, zuzenean, itzultza bidali. Gero itzulpen hori sare sozialetara bidali daiteke edo beste aplikazio batzuetara.

ETORKIZUNA

Eta aurrerantzean zer? Aurrera begiratzuz gero, lan handia dago: itzulpen automatikoko tresna trebatzen eta hobetzen jarraitu behar da, gaurtik aurrera erabilgarri dauden hiru hizkuntza-pareak kontuan izanda. Administrazioko benetako testuekin trebatu behar dugu sistema, epe labur batean Administrazioko langileek tresna hori lanerako normal-normal erabili dezaten.

Baina badaude bestelako erronkak ere: hizkuntza-pare berriak garatu eta Itzulpen Memorien Banku Publikoarekin (aurki martxan izango den aplikazio berria) uztartu, itzulpen automatikoaren sisteman itzulpen-memoriek pisu handiago izan dezaten.

Azkenik, kontuan izan behar da sistema hauek ondo erabili behar direla. Itzultzaile automatikoak testu orokorrak, formalak eta ondo idatziak itzultzen ditu. Jakin behar da, hortaz, makinari zer eskatu dakioken eta zer ez. Hori ezinbestekoa da makinatik emaitza ona ateratzea nahi bada. Hala ere, erabiltzaileak gauza izan behar du makinatik ateratako emaitza gainbegiratzeko eta, behar izanez gero, zuzentzeko. □



«Itzultzaileak testu laburrak eta webguneak itzultzen ditu»



Itzultzaile automatikoaren helbidea:

www.itzultzailea.euskadi.net



48. zk.

2014ko ekaina



BERRI LABURRAK!!

Gaitasun digitalen Europako esparrua

Europako Batzordeak zortzi gaitasun gako (pertsonek guztiak beren garapen pertsonalerako behar dituztenak) ezarri ditu herritar modernoaren curriculumean, eta horien artean **gaitasun digitalak** daude.

Zehazki, oinarritzko gaitasun digitalak pertsona batek teknologia digitala, komunikazio-tresnak eta/edo sareak **erabiltzeko** dituen ahalmenak dira. Horien bidez, pertsonak gai dira informazioa modu etiko eta legalean eskuratzeko, kudeatzeko, integratzeko, ebaluatzeko, sortzeko eta komunikatzeko, Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartearen modu osoan funtzionatzeko moduan.

Europako Batzordeak jotzen du gaitasun horiek zeharkakoak direla, garrantzitsuak baitira ikaskuntzarako, enplegarritasunerako, inklusiorako, partaidetzarako, berrikuntzarako, sormenerako eta lehiakortasunerako.

Europar esparru hori DIGCOMP proiektuan oinarrituta garatu da eta honako **arlo hauek** ezartzen ditu:

1. Informazioa.
2. Komunikazioa
3. Edukia sortzea
4. Segurtasuna
5. Arazoak konpontzea

(horiek **21 gaitasun** barne hartzen dituzte, besteak beste: informazioa bilatzen jakitea, informazio hori ebaluatzea, identitate digitala behar bezala kudeatzea, arazo teknikoak konpontzen jakitea eta abar.)

DIGCOMP Europan gaitasun digitaleko osagai gakoak identifikatzera zuzendutako proiektua da.

Proiektu hori Europako Batzordearen *Institute for Prospective Technological Studies* (IPTS) erakundeak gauzatu du, eta Europako herrialde guztietako unibertsitate eta ikerketazentrotako 90 adituk parte hartu dute.



Europako Batzordea:

http://ec.europa.eu/index_es.htm



Hemen da .eus domeinua

Pasa den apirilaren 15ean www.domeinuak.eus jarri zen abian, .eus luzapena duen lehen webgunea.

Aurrera buletinaren 33. alean jakinarazi genuen bezala (2009ko martxoan argitaratua), **PuntuEus Fundazioa** ICANN (*Internet Corporation for Assigned Names and Numbers*) erakundearen aurrean domeinu berri hori eskuragarri jartzeko antolamendu eta lan tekniko guztiak egiteaz arduratu da. Behin ICANNen onospena jaso ondoren, zenbait fase ireki dira, luzapen hori duen domeinu bat eskatu ahal izateko.



Hala, ekain honetatik aurrera, 90 erakundek (horiek aldeztatik hautatu dira, lehen fase honetako zati izan daitezkeen) domeinu hori estreinatu ahaliko dute Interneten. Ondoren, pixkanaka beste erakunde batzuk ere (elkarte, enpresa, administrazioak eta abar) .eus luzapena erabili ahal izateko aukera irekiko da.

Domeinu berri horren helburu nagusia euskal hizkuntza eta kulturari loturiko webgune guztiak barne hartzea eta horien identifikazio-zeinu bihurtzea da. PuntuEus Fundazioak berak adierazten duen bezala «*sinbolo hori euskara eta euskal kultura sustatzeko tresna bat gehiago izango da*».

Atal honen bidez jakinarazten dizuegu Eusko Jaurlaritzak Euskal Herri Administrazioa .eus domeinuan sartzeko proposamena onartu duela. Dagoneko lehenengo sei domeinuen eskaera bidali du Jaurlaritzak, eta honako hauek dira: basquecountry.eus; spri.eus; ejie.eus; eitb.eus; etxepare.eus; eta hazi.eus. Halaber, Jaurlaritzaren Administrazio Elektronikoa euskadi.net-etik euskadi.eus-era pasatzeko izapideak abian jarri dira.

Lehenengo abiarazte-fase honen ondoren, Eusko Jaurlaritzak plan bat ezarri du, eta horren arabera aurreikusten du aurten 200 .eus domeinu erregistratuko ditugula.

Informazio gehiago izango duzue datozen Aurrera! aldizkarietan. Hala ere, jakin behar duzue domeinu berriak erregistratzeko eskaerak uda pasa ondoren egin beharko direla.

PuntuEus elkarteak:

<http://www.puntueus.org>

